

Katherine Johnson, erretratu alfabetikoa

Alan Shepard, espazioan izan zen lehen estatubatuarraren hegaldiaren kalkuluetan parte hartu zuen.

Barack Obama, Askatasunaren Domina Presidentziala eman ziona 2015ean.

Coleman, bere ezkondu aurreko abizena.

Dorothy Vaughan, laguna eta NASAko lehen urteetan bere ikuskatzailea.

Ehun eta bat, hil zenean zuen adina.

Fisikaria, matematikaria eta espazio-ingeniarria izan zen.

Giza kalkulagailua, NASAn bere lana.

Hidden Figures, emakume beltzek NASAn egin zuten lana erakusten duen pelikula, Katherinen pertsonaia protagonistetako bat izanik.

Irakaslea, afroamerikarrentzako eskola publiko batean matematika, musika eta frantsesa irakatsi zituen.

John Glenn, orbitan izan zen lehen estatubatuarraren hegaldiko kalkuluak egiaztatu zituen.

Kongresuko Urrezko Domina, Estatu Batuetako kongresuak emandako saria jaso zuen 2019an.

Langilea, 26 artikuluz zientifikoren egileetako bat izan zen.

Mercury proiektua, NASAko proiektu honetan kalkuluak egiteko arduraduna izan zen.

NASA, 35 urte egin zituen bertan lanean.

ÑuSat 15, bere omenez espaziora bidali zen satelitea, "Katherine" ezizenarekin.

Ondarea, eragin handia izan zuen gizartean, zientzia espazialean eta konputazioan aitzindaria izan baitzen.

Poztasuna lanean, inoiz ez zuen esan "Ez dut lanera joan nahi".

Snoopy saria, NASAko langileentzako ohorezko saria jaso zuen.

Talentu matematikoa, txikitatik erakutsi zuen gaitasun berezia.

Unibertsitatea, West Virginia State College-en matrikulatu zen 15 urterekin.

Virginia, bere jaioterria.

Xenofobia eta arrazismoa jasan zituen beltza izateagatik.

Zientzialaria, hainbat alorretan egin zuen lan: matematika, informatika, ingeniariaritz, fisika...